



1. "Etxean kontu-kantari"

Askotan ipuinak edertu daitezke kantatzeko edota antzezteko proposamenez. Errepikapen erritmikoan oinarritzen diren ipuinak aproposak dira jolaserako, kantatzeko edota antzezteko. Hona nola: ezetz nahastu gabe esan; a, e, i, o, u bokaletako bat bakarrik erabiliz, silabak eta hitzak osatu. Adb: "Bahaan jaan nantzan azakara...". Gaur era horretako bi ipuin proposatzen dizkizuegu zuen seme-alabekin erabiliz, hizkuntzarekin jolasteko: "Akerra ikusi dugu" eta "Behin joan nintzen azokara". Autoan kantari joateko egokiak dira biak, eta baita etxeko festaren batean antzezen txiki bat egiteko ere... Bestalde, hurrekin mugimenduzko jolasak egiteko bi proposamen dakartzagu: "Zapi txuri honekin", soka saltoan aritzeko eta "Xango mango" haurra belaun artean kokatu eta trostan aritzeko. Horiek denak aurkituko dituzu [etxeko txokoa](#)n. Ondo pasa!

2. "Ipuinez ipuin"

Animaliak protagonista duten ipuinak unibertsalak dira; gizakiak animaliak erabili izan ditu hurrei gizakiaren bertuteak eta haren gabeziak helarazteko. Guregana liburuen bidez iritsi dira gehienak, eta idatzi zireneko moral ikuspegia erakusten digute. Baina hauek pixka bat astintzen baditugu, pieza literario oso ederrak aurkituko ditugu: hizkuntzaren erabilpena eta erabiltzen dituzten irudi literarioak paregabeak dira zenbaitetan. Gaur egun ere alegiak idazten dira, baina ikuspegi gaurkotua dute, noski. Horietako batzuk erabili ditugu Buletinean: Pat Hutchins, [Loreren ibilaldia](#). (Pamiela-Kalandraka, 2011. *Rosie's Walk* 1. edizioa 1968); edota Marisa Núñez; Helga Bansch, [Kokoriko](#). (OQO-Txalaparta, 2009). *Sasi guztien gainetik* liburu eta diskoan ere adibide batzuk daude, adibidez: [14. Hartza, otsoa eta azeria](#). Baina gaurkoan, [Otso ergela](#) alegia ekarri dugu gure sailera. Irakurri, kontatzen ikasi eta zuen hurrekin disfrutatu.

Abrite portas, klis-klas!

3. "Gela barnean"

Lehenagotik erabili ohi dugun liburu bat gomendatzen dizuegu zuen etxeak eta gelak poesiaz betetzeko. Haur poesia dibertitzeko da, jolasak egiteko. Gaurko gomendioan, aldi berean, jolas grafikoa ere kontutan hartzen duen obra bat gomendatuko dizuegu. [Mariagoikoarenak, batbirulau!](#) liburuaz ari gara, noski. Liburu honen baitan, elkarriketa bat sortzen da haur poesia, zaharra eta berria, eta gaur egungo diseinu grafikoaren artean. Liburua arakatu dugu haren erabilpena erraztuko duen sailkapen bat eginez. Nola edo hala disfrutatu aukera honekin, gozatzeko asmoz sortu zen lan hau!

4. "Egitasmoa martxan"

Aro berri batean sartu gara Bularretik Mintzora egitasmoan. Abian jarri zenetik, parte hartzen duten herrietako haurren irakurketa ohiturak sortu edota hobetzea izan da gure erronka. Hein batean, hala gertatzen ari zaigula iruditzen zaigu, eta ebaluatuak izan diren familiek irakurtzeko zaletasuna finkatu dutela esan dezakegu. Hobekuntza nabaritu duten aldagaiak atxikian dauden txostenetan azaltzen dira. Laburbilduz azpimarratuko ditugu: Jarreretan izan diren aldaketak: plazerrarekin, komunikazioarekin eta afektibitatearekin lotzen da irakurketa. Kantatzeko inguruko baldintzen kontrola eta arretaren iraunkortasuna handiagotu dira. Haur literaturari buruzko baliabideen informazioa, eta maileguaren erabilpena areagotu dira. Lehenagotik ezagutzen ez ziren kanta erabiltzen dira etxeetan. Partekatzen den denbora horien bizipenen hobekuntza antzematen da. Ikusi 2011-2012 ikasturteko Gurasoen bukaerako ebaluazioa osatzen duten bi dokumentuak: "[Emitza orokorren ondorioak](#)" eta "[Txosten orokorra](#)".

Buletina hilero e-postaz jaso ahal izateko izena eman gure web guneko [Guraso Berriak](#) atalean.

Informazio gehiago: www.bularretikmintzora.org eta www.galtzagorri.org